

PRACTICUMEAN PARTE HARTZEKO JARRAIBIDEAK

INFORMAZIO OROKORRA

Laguntza: aplikazioarekin gorabehera teknikorik izanez gero, deitu CAUra: 945 20 72 56 (aukera 1)
Eskaerari buruzko zalantzak: harremanetan jarri dagokion lurralde ordezkariarekin.

Baimenak:

- Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoak: Administrazio Sistema Delekatua izeneko aplikazioaren bidez R56 rola duzue; hura erabiliz, ikastetxeko edozein pertsonari eman diezaiokezue PRACTICUM aplikaziorako sarbidea.
- Ikastetxe itunduak: orain arte MATRIKULA aplikaziorako sarbidea zuten pertsona berberak izango dute PRACTICUM aplikaziorako sarbidea. Sarbidea beste norbaiti eman behar bazaio, informazio hau bidali behar duzue huisl046@euskadi.eus helbidera:
 - Izen-abizenak
 - NAN
 - Helbide elektronikoa pertsonala
 - Ikastetxearen kodea
- Haurreskolak: ez dute PRACTICUM aplikaziorako sarbiderik. Partzuergoaren bidez aurkeztu behar dituzte praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izateko eskaera eta plazen eskaintza.

Aplikaziorako sarbidea: Hezkuntza Sailaren ataritik sar daiteke.



Practicumaren antolamendua eta garapena dekretu honetan araututa daude: [33/2018 DEKRETUA](#), martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoa.

ESKAERA FORMALIZATZEKO PROZEDURA

Ikastetxea ofizioz onartuta badago praktiketako prestakuntza-zentro gisa, aplikazioak, sartu orduko, horren berri emango du, eta, beraz, zuzenean plazen eskaintza egin behar da. Ofizioz onartuta ez badago, aldiz, lehenik eta behin praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izateko eskaera egin behar da.

➤ PRAKTIKETAKO PRESTAKUNTZA-ZENTRO GISA ONARTUAK IZATEKO ESKAERA

Ofizioz onartuta ez dauden ikastetxeen nahia bada Sailaren onarpena jasotzea praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izateko, derrigorra da eskaera formalizatzea. Horretarako, aplikazioan eskatzen diren datuak bete eta dokumentazio hau erantsi behar diote eskaerari:

- Ordezkaritza Organo Gorenaren (ikastetxe publikoen kasuan) edo Eskola Kontseiluaren (itunpeko ikastetxe pribatuen kasuan) onarpen-agiria.
- Praktiketako ikasleentzako lan-plana, dekretuaren 10.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hau da, memoria labur bat, datu hauek jasotzen dituena: ikastetxearen ezaugarriak, harrera-plana, ikastetxearen giza baliabideak eta baliabide didaktikoak, **ikastetxea zenbateraino dagoen konprometituta metodologia berritzaileekin eta hezkuntza-proiektuekin...**

Praktiketako koordinatzailea nor izango den ere jakinarazi behar dute, practicumeko zenbat ikasle hartzeko prest dauden eta zer irakasle proposatzen diren tutore-lanetarako; etapak eta espezialitateak ere adierazi behar dituzte, hots, plazen eskaintza definitu behar dute.

➤ PLAZEN ESKAINTZA FORMALIZATZEKO PROZEDURA

Bai praktiketako prestakuntza-zentro gisa ofizioz onartuta dauden ikastetxeek eta bai praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan nahi dutenek formalizatu behar dute plazen eskaintza. Azken horiek onarpen-eskaerarekin batera aurkez dezakete plazen eskaintza.

Prozesua aplikazioaren bidez egingo da eta hurrengo atalak bete beharko dira:

1. Ikastetxeko praktiketako **koordinatzailea** izendatu behar da.
2. Halaber, **espezialitate bakoitzean praktiketako zenbat ikasle** hartu nahi den tutoretzapean **hezkuntza-etapa bakoitzeko** -Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Heziketa- (bat baino gehiago ere izan daitezke). Lanbide Heziketa, Hizkuntza Eskola, Arte Eskola, Kontserbatorio eta Kirol Ikastetxe kasuetan, plaza kopurua baino ez da zehaztu behar, espezialitaterik zehazten ez delako.
3. Horrez gain, praktiketako ikasleak hartzeko **proposatu diren tutoreen zerrenda** erabaki behar da.
Gogoan izan ezen, aipatutako dekretuaren arabera, irakasle tutore gisa egiaztatua izateko nahitaezkoa dela bi baldintza hauek betetzea: gutxienez hiru urteko antzinatasuna izatea irakasle-lanetan, eta gutxienez ikasturte oso batez praktiketako prestakuntza-zentroan zerbitzuak ematen aritu izana.
Zuen ikastetxeko plazen kopurua finkatzeko, aintzat hartu behar duzue dekretuak ezartzen duena: tutore bakoitzak gehienez bi ikasle har ditzake tutoretzapean.
4. Azkenik, egindako eskaintzak harrerako ikastetxearen ahalmenak gaindituz gero, tutoretzapean hartuko diren **ikasleen kopurua mugatzeko** aukera dago.

Eskaintzari buruzko argibideak

Helburua da eskaintza zabala eta askotarikoa izatea, ikastetxeak hainbat espezialitatetako ikasleak hartu ahal izateko. Hala ere, baliteke ikastetxe batzuk –txikiak izateagatik– mugatuta egotea, eta, horregatik, eskaintza askotarikoa izan arren, aplikazioak aukera ematen du praktiketarako hartu nahi den ikasle kopurua mugatzeko.

Horrenbestez, zera proposatzen dizuegu: espezialitate aukera zabala eskaintzea, ahal bada hezkuntza-etapa ezberdinetan, eta, ikastetxea txikia delako ezin badituzue ikasle asko hartu, tutoretzapean hartuko den ikasle kopurua mugatzea.

Tutoreei dagokienez, asmoa da zerrenda zabala izatea (esandako baldintzak betetzen dituzten tutoreekin osatua). Beharrezkoa bada, irailean aldaketak egin ahal izango dira, ikastetxearen eskaintzari eutsi ahal izateko.